



EUSEBIO ERKIAGA

1912-09-04

1993-05-31

FOLL- LN-1- (C-2)

Euskal Biblioteka Labayru



1023620

Literatura-58/(883.libx.)
Liburuxkak



Argakia: Toni

Festa zale Eusebio? Ez dakit nik ba! Bestela pentsatzea ere! Ikerkuntzara jo beharrean ote gara, Eusebioren zaletasuna artean zegoen jakin nahian? Herri zale, bai ordea, Lekeitio zale zalantzarik gabe.

Ondo ezagutzen zuen bere herria eta herri horren zirrikitu guztiak zituen etxeko; Lekeitio den itsas bazter honek sortu duen idazle bikainenaren kontaleku garrantzitsuena, eta erabili ohi zuen hizkerari kresal ikutua dario.

Hizkera eta herria dira, Lekeitioko San Antolin jaiak direla eta “programan” itxuraz zimel, sormenez mardul genuen herritarrak utzi dizkigun lantxoetako gaiak.

Zai egoten zen. Zelan ez? Horretan ere Lekeitiar bete-betea genuen. San Antolinak noiz helduko lantxoren bat besteoi uzteko irrikitan edo. Iragarlea genuen Eusebio.

Unkigarria da batez ere, 1993ko martxoaren 21ean Lumentzapeko lagun-min bati –Rufori, bai, asmatu egin al duzue?– eginiko gutuna.

LANTXU HONEK, 30 LERRO DITU, ETA, IZENA “AGUR JAUNAK”,
1993. URTEKO SANANTOLINETARAKO PROGRAMAN AGERTU
LEITEKE.

HORKO GAUZAK ETA INGURUAK, SARRI KATAU DITUT.
GEURE-GEUREA DOGUN –TOKIAK TOKIKO–
BERBAKUNTZA HONEK, ONDO MEREZI DAU
OLERKITXO HAU, ETA GEHIAGO BE.
HORRA BA, NIRE GURARIA PROGRAMARAKO,
AGUR HANDIA BE, IZAN LEITEKE.

“Honako gauzak eta inguruak”... “geure-geurea dogun berbakuntza honek”.

Erraz, modu irakurterrezean, herritarrentzat; pertsona haundiek dakiten eran heltzen da –heltzen da– gaur ere. AGUR HANDIAREN ondoren –Eusebioren mezua–. Beste komunikatzaile zuzen bat datorkit burura; lekeitiarra hau ere; lekeitiar maitalea; lekeitiarreraz mintzatu ohi zena Euskal Herriko txoko guztietan: Santi Brouard.

Enkarguz egin ohi zituen irakurgai bildu diren hurrengo lantxook; San Antolinetarako programan agertu zitezten; bere bihotzaren enkarguz lekeitiarrentzat jai-opari modura.

“Nire guraria programarako”; azken lana izango zela asmatu zuelarik.

“Agur handia”; ez. Aurrerantzean zure herriminezko orri zuriek beteko dute San Antolin programaren sarrera atala.

Esker onez.

ETORKIZUNAZ GOGOETAN

Goizero isil isilik dator
eguzkiaren argia,
zahar ta gaztek premiña dogun
argi/bero iturria,
gure onuragarria.

Erri goiztarra zan Lekeitio
itsasorate-zalea;
gau-ilunean gizonak bizkor
kaiganerako bidea,
deitzaille, emakumea.

Erri alairik bat iñun bazan
geure erri maite auxe
jai ta domekaz eleizan, plazan
gazte/zaharren alkarte,
maitasunaren loratze.

Errikoseme jatorrak deslai
berrogei urte luzetan,
errezoi bako zigor okerren
bildurrez beti penetan,
zuzenik ez bazterretan.


Guztiontzako goizero argi
Jaungoikoaren begiak;
alan, guraso maite ziranak
guretzat gogo biziak,
laztantsu gara aziak.

Ezin giñeike ezelan eten
aurretikoen katea;
zimelduko da berandu barik
sustrai bako landarea;
biziak bere legea.


Etorkizuna, lana, bakea
gaurko gizonen ardurak;
ikasi, landu, ikusi, gertau
eta garaitu esturak;
ez usteldu aize/urak.

Lanaren bidez goirantz edonoiz
munduan erri azkarrak;
atzeratuak ez dira izan
aspaldi lekeitiarrak,
Alkar daiguzan indarrak!

Eusebio Erkiaga
Lekeitio, 1978-VIII



Argazkia: Klik taldea



Argazkia: Klik taldea

REFLEXIONES ACERCA DEL FUTURO

Cada mañana llegan silenciosamente los rayos solares, fuente de luz y calor, cuya necesidad tenemos jóvenes y mayores beneficiosa para nosotros.

Lekeitio era pueblo madrugador, de gente de hacerse a la mar, cuando aún en noches oscuras los hombres iban presurosos hacia el muelle, en rápida respuesta a la voz de las llamadas, voces de mujer.

Si algún pueblo hubo alegre, ese era el nuestro, bien amado. En los domingos y días festivos, bien en el Templo, bien en la Plaza, se congregaban viejas y jóvenes generaciones, en un florecer cariñoso.

Durante cuarenta años largos, la gente propia de la población vivió inconsistente, con miedo y con penas, bajo amenaza velada injusta, careciendo de equidad en su ambiente.

Luce cada mañana para todos el resplandor de la Divina mirada; así perdura el espíritu bienhechor de nuestros padres, quienes nos criaron con gran afecto.

No podemos en manera alguna romper la cadena que nos une a los antepasados; sin tardanza habría de marchitarse la planta cuyas raíces se hubieran arrancado. Es recia ley de la vida.

El porvenir, el trabajo, la paz, son los temas inquietantes para los hombres de hoy; el estudio, la cultura, el conocimiento y la preparación harán superar las dificultades. Y que no corrompamos el aire y las aguas.

Los pueblos adelantados del mundo se elevan continuamente por el trabajo; no han sido retrógrados desde hace tiempo los lekeitianos. Unámonos, pues, en nuestros esfuerzos.

LURRALDEA TA HERRIA

Lekeitio, polita zara!
-heldubarriaren esana-
Itsasaldean,
lehor-ertzean
urdin eta berde artean.


Hondartza txairo, portu, mendi,
jokera aukeran Amandarri...
begiak pozik
ikusgarririk
politenak hor ikusirik.

Heldubarriak ezin jakin
herriaren gogo eta mamin:
azalekoa
ez da nahikoa;
barruan zuk takarakoa.

Zer dozu zerik ederrena?
Andren ta gizonen kementa.
Alkartasuna
laguntasuna,
lekittarren bihotz biguna.

Itsasoa baizen emonkor,
arnasa sendoz herri jator;
beti kantari,
begiak argi,
agur-agurka edonori.

EUSEBIO ERKIAGA 1979



Argazkia: Kliik taldea



Argazkia: Klik taldea

EL PAISAJE Y LO HUMANO

Lekeitio ¡qué bonito eres!

—el forastero exclama—

Del mar al borde,
en un confín de la tierra,
entre azules y verdes.

Playa airosa, tu puerto, tus montes,
Amandarri el concurrido...
los ojos del recién venido
disfrutan contemplando
paisajes encantadores.

No puede conocer el forastero
el espíritu y lo humano de tu pueblo;
lo que al exterior se note
es un sentir pasajero
es tu interior donde brota el toque.

¿Cuál de tus componentes es lo más valioso?
De tus mujeres y hombres el vigor,
la gran unión,
la mutua ayuda,
de los lekeitiarras la ternura.

Eres generoso como el mar
castizo pueblo con tenso aliento;
siempre cantando
y con un claro mirar
a todo el mundo saludando.



Argazkia: Klik taldea

ARRANEGIKO ZABALA

Arranegiko zabala, baketsu,
Itsasoaren auzokide zintzo,
zutzat gaur nire neurtitz eta mintzo;
hemen, begira, pozez naiagotzu.

Bost bide ditugu zeuganatzeko:
Atxabal, Narea kantalebarrenak
ta bi, zeure kale luze horrenak
ta moillakoa, nasai igoteko.

Aizebean dozu bazter gozoa,
ez dozu iparririk ez mendebalik
ez dozu hor barruan tabernarik,
ixil manatan gauñen osoa.

Lekeitiar nire nobelatzuko
Zuriñe, Arranegiko lorea,
hortxe haren etxe ta atetea;
mutillak, zain, bera noiz agertuko.

Arranegiko zabal horretara
helduko da Xirido, neska laguntzen
maite-kontuak ixilik esaten,
Zeruan dirdiz keiñuka, artizarra.

Kaxarrenkeak hortxe be ekiña,
uiuiu zantzo zolien artean,
orduan beti zan arratsaldean,
orduan bai San Pedro egun fiña!

Kantalebarreneko bazter argia,
eguzkia dozu uda nahiz negu;
zeure andra garbien batzar-leku,
umee, maite zeure iturria.

Arranegiko zabala, goiztarra,
herriko bazter askoren artean
txit minbera zaukadaz bihotzean;
hain dozu zeugan, amesen indarra ...

GASPARREN ZALDI SENDOA

Harrizko zaldi eder sendoa,
nun da Drake itsas-lapurra?
Gizon gaizkille harentzako be
azken orduko egurra.

Zerualdea odaiz jaztean
hor zagoz dollidu barik,
ekatx gogorren ostean une
barea dala jakinik.

Iparraizeaz ezkutuan zu,
arerio, mendebala;
herriko aize epeltzan tente
zure burua ta bizkarra.


Noiztik zagozan inok ez daki
ezta Gaspar nor zanik be,
hainbat olatuk landua zara;
misteriozko ixilpe.

Gizaldi eta gizaldietan
barrako orazinoia
sarri entzuten zenduan lehen,
hori be galduz doia.

“kulpitua” hor ikusten dozu
ez “Prailearen burua”
kresalez garbi zure apatxak
ta “Islako surtzilluak”.

Gorputza lerdan, burua zutik
lehorraldera begira,
Antzar egunez lekeitiarrak
zeugana joango dira.

EUSEBIO ERKIAGA
1981



AURTENGO NEURTITZAK

Edertasun bila dabil
gehientzat gizartea;
bada, orain, apaindu-beharra!
bai soineko, bai etxea.

Etxebarrua dotore
zeinek ez dau jarri gura?
Horretarako bada, inor be
ez da diruaz ardura.

Kaleko horma zikinak,
ostera, ez ziran eder;
ta garbizale dan gazteria
ez da izan nagi ez alper.

Etxe eta kaleak garbi
hori herriaren jasa;
ta garbirik arrantzu-ontziak
garbirik kaia eta naza.

Horma-farolak polito
zahar-barria alkartu,
kale-izen aldakuntzaren bat
ez jat atsegin gertatu.


Bostehun urte inguru
"Beascocalea" zana
ez dogu beheko, ez barrena;
ikusi paper lehena (1)

Beaskoa bizkai-berba
esanguraz egokiak
orainarte lez begirunean
ondotxu dau merezia.
Ez murriztu hiztegia!



Argazkia: Klik taldea

(1) ikusi "Padrón de la Hacendera de los vecinos de Lekeitio, formado el año 1510". Orduan "Beascocalea" baino sakonerago "Urybarren calea" egoan, gaur Exkolapea dan horren zatiune bat. "Dendary calea" y "Beascocalea" ta orduko "Urybarren calea" izakeran alkarren antzeko hiru Kale ziran, lurrazalari atxiki eginikoak, Lekeitioko alde zaharrenekoak izan be, Arranegi-aldea oraintsuagoko dana, goitik beherako kale zuzenak erakusten dabe.



Argazkia: Klik taldea

IPUIN TXIKI

Antxinetan
Antxinetan
Lekeitiarra
Otaiora
joan zan.

Zeozer jakin
gura eban;
kainubeta
zorrotza
eskuan.

–Otaio
ba daukak
odolik?
esan eutsan
bero-berorik.

Eta dzast, dzast!
kainubetea
sartu eutsan
Otaiori
gogorrean.

Lurganean
gorriunea
agertu zan,
lekeitiarraren
eskua egoan
odoletan.



Argazkia: Klik taldea

KARRASPIO TXIKI

Baina nok esan deutsu
Karraspio txiki,
nok esan deutsu zuri
hondatza basati?

Hondar garbi ederrez
inguru guztia,
iparraizepean hor
gogoko tokia.


Hondartza basatia
zuri esateko
ezjakintasuna da
askoren arteko.


Gure ume denporako
karraspio txiki,
zure izen polita
geugaz dogu beti.

ZAHAR ETA BARRI

ASTIRO	Zorioneko jaketia ta zorioneko gonia, zorionian ikasi neban kontziopera bidia.	AZKAR	Zorioneko ... Ertzain gaztiak etorri jakuz txapel gorria buruan gerra aurretik foral paria geure artian genduan.
AZKAR	Zorioneko ...		
AZKAR	Naza zaharra zabaldu dabe, txairo daukagu kaigana, San Pedron kilinkala jatorra orain be heldu gugana.	AZKAR	Zorioneko ... Droga bigunak eta gogorrak guztientzat kaltegarri, osasuna horrelan galduta gazteria ezin bizi.
AZKAR	Zorioneko ... Udaletxia hurrengo eta Zorioneko Hostala, astilleruetan saso baten egurra eta zozpala.	AZKAR	Zorioneko ... Txindorria udazkenian be goiko txarakan kantari: itsasuetan eskubidia arrantzialien gurari.
AZKAR	Zorioneko ... Hondar txikian ipini dabez arbola berde barriak, botoi bateri sakatu eta ur zaparrada garbiak.	AZKAR	Zorioneko ...

EUSEBIO ERKIAGA 1985





Argazkia: Klik taldea

ANTZORIZ

Gurma lodiz
ez zaitut ikusi nahi,
Antzoriz;
bai barriz zeru urdinpean,
bedar arteko lora horiz.

Gure itsaso hau
Amandarritik
ikusten dogun arren,
Antzorizen daukaguz
begiak zabalen,
hor dira hainbat lehor-mutur
Matxitxako
eta Iger, urrunen.

Udako illunabarrean
AntzORIZen
eguzkiaren urrea
zeru ertzean,
edertasuna ikusmenean;
izurdak dzauandzauan
askatasun batean.

Hor ba zan aintziña
baseliza apaiña:
Santa Kataliña.
Gizon gaiztoek abadea hil eben
bere Lekeitio maiteruntz
bidean, etorrela.
Orain ia bostehun urte.
Hor dago bide bazterrean
kurtzioa harrian,
Gizarteko heriotzak
noiz arte?

Aurtengo udan
barriro ikusi zaitut
neure begiz,
zeru urdinpean
bedar arteko lora horiz,
ondo gogoan zaitudan
ene Antzoriz!



Argazkia: Klik taldea

KRESALAREN PENAK

Antzar egun goizean
urtero urtero
txistusoinua dabil
alai eta bero,
Patxi ta Sabin honuntz
agertu ezkerro
txistulariok daukez
milaka bezero.

Eguna argitzean
kaleratzen dira
tuntuna ta txistua
alkarri begira,
kalerik kalekoak
jira ta bira,
bizkor doiaz Atera
ta Arranegira.

Aitita txistulari,
eta aita be bai,
eurenez holakoak
eurenez dira gai,
lanaldietan lana,
jai danean jai;
neguan miserian
udan danok alai.

Bai Patxi ta bai Sabin
hainbeste urtetan
antzar egunez soinuz
gure kaleetan,
eta holan izango
danaren ustetan
aurten ipinten doguz
programa honetan.

Ansola Erkiaga
euren abizenak,
alaitasunez dabez
beti ahalmenak;
gure Antzarrak orain
hemengo zezanak,
jai bihurtuten doguz
kresalaren penak,

AURTEN AURTENGOA


Etxetik nago begira
gure eleizurre barrira;
bazter politikak politagotzen
hor datoz lanak harira.

Eleizurreko bidea
harlanduz ta argiz betea
aspaldietan zakar egoan
barriro be, dotorea.

Jaunaren etxea eder
ederragorik ez ezer
lekittar maite antxinakoak
hori susmatu eben laster.

Kanpantorrea zutunik
ezagutu zuk eta nik,
kanpai ezbardin durunditsuez
hainbeste gauza esanik.

Udako egun luzeak
nun dabiz atunzaleak?
Ondoren ona izango al dau
hegaluze kostereak.



Argazkia: Klik taldea

Sarantolinak ganean
barrakak aurtan Atean;
munduko andrak eta gizonak
esperimentu artean.

TXALUPETXEAK

(Bertso zaharra)

“Gure Katalin jaio zan egunean herri ta
kofradia aparta zirean. Salomeneko
mahaiak baleki berbetan harek esango
leuke hemen zer pasa zan”.

Hainbeste txalupetxe
ziren antxina,
bakotxak berak eukan
baztertxu jakina;
etxean bazkari ta
afari arina,
lauretako gura
aparte egina.

Lauretan gura eban
umeak ogia;
gizonak, barriz, ogi
eta lazeria;
ogi barruan jaki
apurra iratzia,
eskua atzekaldean
eta han, amuzkia.

Txikito kosterarik
ez egoanean
egotaldi nasaia
taberna ilunean,
kuartilerdiko pitxar
zuria aurrean,
mahastiko ur balza
pitxar barrenean.

Pitxarrekoa astiz
edan bitartean
batzuk kanta kantari
gertaten zirean;
“markesaren alaba”
kantuen artean,
bihotzak samur samur
ilunabarrean.



Argazkia: Klik taldea

“Amoriua zeukan
barrena sartua”
holan amaituten zan
bigarren bertsoa.
Markes baten alaba
txit maitemindua
arrantzale bategaz
zorabiatua.

Arrantzaleen kanta
bigun gozatsuak
betiko galdu ditu
giro modernuak;
han amaitu zirean
hango berbaruak ...
telebisteak gaukaz
gaur menperatuak.

Zer ikusiko gagoz,
eta zer entzungo,
tresna zirina ez da
ixiltzen egundo,
tramankuluak hainbat
kanal eta zingo
estres edo expresak
gaitu danok jango.

Zingo txiki, zingo handi

Zingo txikian igeri ikasten
Ume denporan aurrera,
eta gero abadeen moilan
zapaletik zapalera.

Zingo txiki ta handiak
hor dira aukeran,
marraixu ta izurdak
bizi euren eran.

Portu-erdian buia egoan,
Haraino joan ta etorri,
horren hurrengo bildurrik barik
moilatik moilara segi.

Lehorrean azeri,
itsasoan zarbo ...
bizitzarako maixu
hoberik ez dago.

Olatu bako itsasertzari
makal eretxi ezkeru
karraspioko olatu bitsak
lantxarakoan ze ederto!

Hostala laster dogu
erdi barriztaurik,
hor egon da aspaldion
hain ganora barik.

Zortziko handi, zortziko txiki
erdizka aurtengo bertsuak,
anaitasunik samurrenagaz
emon alkarri eskuak.

Itsasondoan jaio,
ta kresaltzan busti,
zerura igongo dogu
guk kresal ta guzti.

EUSEBIO ERKIAGA
1990





Argazkia: Toni

SARANTOLINETAN

“Euskalduna, Añamendian
dantzan egiten dauan Herria da“.

VOLTAIRE

Jai arratsaldeetan, ilundu baino lehen erromeria plazan
egiten zan hemen,.

Tanbolina izan zan aspaldi luzean soinu bizigarria gure
gizartean.

Geroago bandak be, hemen izan dira, halan gazte ta
zaharrak baltseo barrira.

Plazara joerea berez ta benetan udan eta batez be,
Sarantoliñetan.

Gauza atsegiña zan plazako batzarra, hantxe umea
dantzan, ta gazte ta zaharra.

Tanolin eta banda erromeri handi, lagunteri ugari hortik
eta hemendik.

Plazara joerea igartu egin da, ta ohiturak ihesi, hain
arin-aringa.

Sasoi baten arpegi ta jantzi garbiak, orain marmoz beteta
bazterrak guztiak.

Lehengo Sarantoliñak daukaguz goguan ... balio ete dabe
posmodernismoan?



Argazkia: Rufo Atxurra

MASTA PUNTA KOA

Igaz igazkoa ta aurten aurtengoa
abadeen moilako masta puntakoa.

Marragazko kaltzerdi lodiak antziña,
hondarragaz batean ibilera fiña.

Ez “mastearen zehar” ta bai mastan zehar,
horixe da jokoa, hori, Lekeitiar.

Daukon koipea kendu masta lodiari,
apur apurka ekin, eta itxi garbi.

Hondarra mazi mazi, kaltzerdi azpian,
oinak txirrist gehiago egin ez dagian.

Zapi zuria dago masta puntan tente,
haren bila gogotsu bata eta beste.

Bide estua dau-eta, gorakoa dan gatx,
arrapatzaile askok dzanga edo dzapart.

Tente joan behar da, tente mastan zehar,
hori da jasekoa, hori, Lekeitiar.

Koipea kendu ahala gero ta gorago,
hondarra maza maza, oina sendoago.

Ea halakoren baten nonor muturrera,
eskuagaz oratu, ta bota barrura.

“Itsasora jausi zan gure Kaltzapintto,
pozik geratu nintzan ez zanean itto”.

AGUR JAUNAK

Soinuz beteriko berbetea
erabili izan dau aspaldian
lekeitiar jatorrak,
eta ez jako etxeko egiten
telebistako albistalari batzuen
mintza-tonu bakarra
serrearen zirrin-zarran antzekoa.

Ba dira, bai, gure lurraldeetan
berbeta modu eder samurrak;
inori ezer kendu barik
hemengoen euskereak
bere izakeran dau
doinu ta durundi berezia,
kantari kantari.

Tokian tokiko, hor dira
hizkera atseginak,
baina inori ezer kendu barik
Arranegi inguruetako
berbeta honek
ez dau egiten palt,
ez dakar arrauzirik,
ez dau gogait eragiten.

Barriketa mamina da,
elkarrentzako soinu bizia,
gora ta behera
dzauan dzauan doian
esatemu araina,
musikaz egina;
hizkera gozo horrek dau
gure maitemina.

EUSEBIO ERKIAGA
1993



LAB Y. III - IKASTEGIA

BIBLIOTEKA - DEGI

Sarr 28.158/96

Gara.

Tokia.



LEKEITIOKO UDALA
KULTUR BATZORDEA